

## **Web orria diseinatu eta sortzea**

Lehenengo pausua gure webgunea diseinatzea izango da, adineko pertsonentzako erraza, argia eta intuitiboa izan dadin. Horretarako, diseinu sinplea, letra handiak eta menu bakunak erabiliko dira. Web orrian informazio garrantzitsu guztia jarriko dugu: tailerren ordutegiak, bideo tutorialak, kontaktu formularioak, ohiko galderak eta erabiltzaileentzako jarraibideak. Gainera, webgunea etengabe eguneratuko dugu eduki berriak gehitzeko.

### **1. Bideo tutorialak grabatu eta editatu**

Adineko pertsonen teknologia ulertzeko bideo sinpleak eta pausoz pauso azaltzen duten tutorialak grabatuko ditugu. Bideo hauek izango dira gure proiektuaren oinarrietako bat. Bertan azalduko dira eguneroko erabilerako kontuak: mezu bat nola bidali, wifi-ra nola konektatu, bideodeia nola egin edo aplikazio erabilgarriak nola instalatu. Bideoak grabatu, editatu eta kalitate oneko formatuan webgunean eta sare sozialetan izango dira ikusgai.

### **2. Boluntarioak eta ikasleak prestatzea**

Tailerrak emango dituzten boluntarioak eta ikasleak prestatuko ditugu. Prestakuntza saioetan azalduko diegu nola landu pazientziaz, nola egokitu azalpenak adinekoen erritmoetara eta zeintzuk diren irakatsi beharreko oinarrizko eduki teknologikoak. Horrez gain, gerta daitezkeen arazo teknikoak konpontzen ere trebatu egingo ditugu.

### **3. Tailerrak antolatu eta gidatzea**

Adinekoen egoitzetan eta gizarte zentroetan saio praktikoak egingo dira, talde txikietan antolatuta. Saio horietan mugikorren, tabletaren eta ordenagailuen erabilera irakatsiko da, eta bakoitzaren beharrei egokituko gara. Tailer horietan, praktika zuzena eta laguntza pertsonalizatua izango da lehentasuna.

### **4. Sare sozialen eta komunikazioaren kudeaketa**

Proiektuaren inguruko informazioa zabaltzeko sare sozialak erabiliko ditugu. Bertan argitaratuko ditugu bideo laburrak, aholku teknologikoak, tailerren argazkiak eta eguneraketak. Sare sozialek, gainera, guraso, senide eta interesdunekin komunikazio zuzena izateko aukera emango digute. Komunikazio estrategia honi esker, gure proiektuaren ikusgarritasuna handituko da.

### **5. Eduki berriak sortzea eta etengabeko hobekuntza**

Proiektuak aurrera egin ahala, erabiltzaileen beharretara egokituta eduki berriak sortuko ditugu. Gainera, jasotako iritzi eta proposamenak kontuan hartuz, bai

webgunea bai tailerrak hobetu egingo ditugu, beti ere adinekoentzako erabilgarritasun eta erraztasun handiagoa bilatuz.